



**TXILLARDEGI**

## limosnaka ari

**A** steak, hilabe-teak, urteak ere aurrera doaz, baina gure eskabide nagusiak (eta euskalduntzea barne) limosnen mailan daude oraindik. Horra hor, adibidez, egun hauetan-ixe bururatzen ari den «Euskal Prentsa» kanpaina.

Eta bakarria ez da, inondik ere. Oraindik ere hortxe dugu «Kilometroak 80» ekintza hura. Ederra, bai, herriaren parte handi batek euskararekiko erakusten duen berotasunaren aldetik. Tristeia ere bai, dena dela, euskararen defentsa, oraindik ere, limosnaka eta erregu apalez egin behar delako.

Era berean (aski da, esate baterako, azkeneko ANAITASUNA begiratzea) alderdi ofizialetatik etorriko omen den laguntza ere, aidean dago, edo hor nunbait; eta eman dezaketen instituzioen aldetik oso gutxi espero baita, behin eta berriz etortzen dira izen berberak: «Bai, egia duk, desastrea duk; baina hor zeudek Etxenike, Labaien, Zaldua, Antsola... eta horiek bederen ahal dutena egingo ditek». Lehen Santamariarekin gertatzen zen bezala. Alegia, hizkuntzaren kezka senditzen dutenek ongi dakite pertsona horietxek direla **salbuespena**; eta **salbuespena** direlako, hain zuzen, behin eta berriz aipatzen dira. Ohar bera egin liteke Euskadiko prentsari buruz: egunkari eta astekari bakoi-tzean, ongi nabarmen daude hizkuntzaren kezka daramaten pertsona **bakar** horiek: Atxaga hemen, Gar-mendia han, eta abar.

Euskara bultzatzeko, hitz batez, **aparatoak gaintitu**, eta pertsona konkretuengana jo behar da; ia-ia

«entxufe» bila joan behar da. Bestela, ongi dakigunez, **JAI DAGO**. Instituzioetan erdara da nagusi, bakarra eta erabat jaun-eta-jabe; eta hori aldatzeko **ASMORIK ERE** ez dago.

Eta hauxe da larriena: esaera jator horrek zehazki esaten duen bezala, **«Franco joan zen, baina euskara ez da etorri»**. Letreroak berak jartzeko, mila lan dago; udaletxe «abertzale» horiei behin eta berriz «ahaztu» egiten omen zaielako... Eta letreroak aldatzea baino errazagorik ez dago, noski! Hor ditugu, hiltzeaz, **ARGIA, ANAITASUNA**, eta gainerakoak. Hots, **ARGIA** aurrera ateratzeko aski liriateke lauzpabost miloi urtean. Baina hori ere ez dago! Aski litzateke Hipodromoari eusteko Donostiako udaletxe «abertzaleak» erabiltzen dituen lau miloiak horrentzat aldatzea: Hipodromoa galduko genuke, eta **ARGIA** irabaziko. Zein donostiarrek joko ote luke ezquila?

**G**auza bera dugu Gasteiz-en. Bertako Udaletxe «abertzaleak» % 0,2 erabiltzen du Gasteiz-en euskalduntzean!! Hitz batez: Cuerda jaunari, eta Cuerda ordaintzen duen partiduari, bost axola zai euskara. Areago: letreroak euskaraz jartzea eta Blas Piñar etortzea ia-ia parean ikusten ditu. «Euzkadi»ren izenean, jakina.

Baina **BERROZI** aurrera ateratzeko, orain jakin dugunez, **123 miloi/urtean** aurkitu dute «abertzale» berberok. Askoren ustez, ordea, Euskal Herriak onartu ez dituen Konstituzioa eta Estatutua defenditzeko egur ematen baino, hobe

liriateke 123 miloi horiek euskal prentsa, irratia eta Unibertsitatea bultzatzen.

Beste muturrean daudenak, ongi dakigu, ez daude txit garbi. Eta erabat ados gara Joxe Azurmendirekin. Gaitza zinez orokorra baita, Irlandan izan zen bezala.

Zifrak ere tamaña berekoak dira. **«The Commission on the Irish language reported that a MERE 0,2% or 0,3% of the National Budget is being spent on Revival»** (Sean O Tuama). Hots, Gasteiz-ko Udaletxe «abertzaleak» %0,2 erabiltzen du, hain zuzen!

Irlandako eskema beldurgarria, horretara, hementxe dugu, geure begien aurrean. Franco hil eta bost urtetara, hemen ez da inolaz ere euskal presiorik senditzen. Bai, aldez, «Euzkadi» eta «Euskadi»ren izenean, sekulako **ERDAL PRESIOA**. Euskarak ez du ezertarako balio; eta, frankismoaren garaian bezala, euskaltzaleok bazterrak besterik ez omen dugu balio.

**I**rlandako bide bera, hortaz. Euskuindar «abertzaleak» agintean, Aberria bitan zatituta (hirutan gurea!), hizkuntza folklokeria bihurtua, adar harmatu bat ekintzan jo-ta-ke ari, agintari eta jauntxo mota guztiak erdaraz, eta % 0,2 hizkuntza piztutzeko (eta «gero», jakina; eta ez hemen)...

Hiletariak omen gara. Agian bai!

Baina hizkuntza **OFIZIALAREN** alde limosna eskatzen ibili behar honek, oso oso kutsu txarra uzten digu.

Hizkuntza **OFIZIALA** izateaz gain, agintzen gaituztenak **ABERTZALEAK** baitira, omen. Zer gara gu, beraz? Nola ez dugu bada txalo jotzen?